KLAUSULA TEKNIKOEN AGIRIA, 2024ko ARAUDIAREN ARABERA, NEKAZARITZAKO, ARRANTZAKO ETA ELIKAGAI POLITIKAKO SAILBURUORDETZAREN (NAEPS) NPB-RI BEGIRA ESKAERA BAKARRA ESKURATZEKO SISTEMA INFORMATIKOA EGONKORTU, EGOKITU ETA MANTENTZEKO ZERBITZUEN KONTRATAZIOARI DAGOKION LIZITAZIOA ARAUTUKO DUENA

Edukia

KLAUSULA TEKNIKOEN AGIRIA, 2024ko ARAUDIAREN ARABERA, NEKAZARITZAKO, ARRANTZAKO ETA ELIKAGAI POLITIKAKO SAILBURUORDETZAREN (NAEPS) NPB-RI BEGIRA ESKAERA BAKARRA ESKURATZEKO SISTEMA INFORMATIKOA EGONKORTU, EGOKITU ETA MANTENTZEKO ZERBITZUEN KONTRATAZIOARI DAGOKION LIZITAZIOA ARAUTUKO DUENA 1

HELBURUA 3

AURREKARIAK 3

PROIEKTUA 4

ESPARRU TEKNOLOGIKOA 6

Mahaigain birtuala 6

Garapenaren antolakuntza 6

LANTALDEA 7

Lantaldea hasieran eratzea 8

Lanak egiteko ordutegia eta tokia 8

Teknologia transferitzea 9

IKTen KONTRATUEN BERARIAZKO BALDINTZAK 9

JARRAIPEN-, KONTROL- ETA IKUSKAPEN-MEKANISMOAK 10

HELBURUA

Helburua da NPBren Eskaera Bakarrerako informazioa eskuratzeko sistema egonkortzea eta 2024ko kanpainarako beharrak betetzeko beharrezkoak diren hobekuntzak sartzea. Honako lan hauek egingo dira:

- 2023ko kanpainarako garatutakoa ikuskatu eta egonkortzea
- Ustiategien Erregistroko modulua egokitzea
- Lurren Mantentze-lanen modulua egokitzea
- Eskaera Bakarraren (EB) modulua egokitzea
- Modulu desberdinetan eta sinatu behar diren izapideetan hautatutako hizkuntza (euskara/gaztelania) kontrolatzea
- Izapide guztietan ziurtagiri digitalaren bidezko sarbidea eta sinadura sartzea
- Laguntzaile profilaren ataria: ustiategia bilatu eta aldatzeko prozesuaren hobekuntzak
- Erabiltzailearentzako oharrak eta laguntzak definitu eta garatzea
- NBEFk 2024ko Eskaera Bakarrerako egiten duen edozein moldapen

AURREKARIAK

NPB berria, 2023tik 2027ra aplikatuko dena, emaitza zehatzak lortzera bideratuta dago, hiru helburu orokorrei lotuta: nekazaritza-sektore adimenduna, erresistentea eta dibertsifikatua sustatzea, elikagaien segurtasuna bermatzeko; ingurumenaren zaintza eta klimaren aldeko ekintza areagotzea, Europar Batasunaren klima- eta ingurumen-helburuak lortzen lagunduz, eta landaguneetako ehun sozioekonomikoa indartzea. Helburu orokor horiek, era berean, bederatzi helburu espezifikotan banatzen dira. Helburu horiek jasangarritasunaren hiru zutabeetan oinarritzen dira, eta nekazaritza-sektorea modernizatzeko zeharkako helburu komun batekin osatzen dira, landaguneak ezagutu, berritu eta digitalizatzearen bidez.

NPB hori behar bezala inplementatu eta kudeatzeko, kudeaketa- eta kontrol-sistema integratu bat ezarri eta abian jarri behar da. Sistema integratuaren elementuak honako hauek dira: nekazaritza-partzelak identifikatzeko sistema bat, eskaera geoespazialen sistema bat eta animalietan oinarritutako eskaera-sistema bat, ordainketa-eskubideak identifikatzeko eta erregistratzeko sistema bat, animaliak

identifikatzeko eta erregistratzeko sistema bat, onuradunen nortasuna erregistratzeko sistema bat eta kontrol- eta zehapen-sistema bat, bai eta gainazalak monitorizatzeko sistema bat ere. Egokia da dauden elementu horiek mantentzea, eta errege-dekretu honetan eskaera geoespazialen sistemari eta animalietan oinarritutako eskaera-sistemari buruzko xedapenak arautzea.

Bere eskumenen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak NPBren kudeaketa- eta kontrol-sistema integratua osatzen duten tresnak ezarri behar ditu, eta, zehazki, HAZIk ekosistema hori osatzen duten sistema informatikoak garatu ditu.

2022ko abuztuaren 31n NPBPE 23-27 onestea izan da hura aplikatzeko araudia garatzeko abiapuntua. Zehazki, nekazariek NPBren laguntzak eskuratu ahal izateko, abenduaren 27ko 1048/22 Errege Dekretuan zehaztutako baldintzak betetzen dituen eskaera bakarra aurkeztu behar da. Dekretu horretan, sistema integratu horrek elikatu behar duen informazio zehatza jasotzen da. Araudi horri lotuta, dokumentu teknikoak eta koordinaziokoak argitaratzen dira, sistemaren osagaiek planteatutako behar tekniko eta teknologikoak estaltzeko izan behar dituzten zehaztapen zehatzekin. Araudi horrek eboluzionatzen jarraituko du hurrengo hilabeteetan.

2023ko kanpainari begira, eskaera bakarra eskuratzeko eta kudeatzeko oinarrizko kudeaketa-tresnak ezarri ziren, eta une honetan, eskaera horiek 2024ko kanpainako baldintzetara eta hark planteatzen dituen eskakizunetara egokitzeari ekin zaio: NPBren kontzeptu berriak kudeatzea, hau da, baldintza indartua edo ekoerregimenak.

PROIEKTUA

Lizitazioaren adjudikazioa ebatzi ondoren, Hazik jardungo den sistemetarako sarbidea emango du, eta behar diren funtzionaltasunak aztertuko ditu.

Analisi horiek ikusi ondoren, enpresa adjudikaziodunak proposamen bat egingo du, eta HAZIk baliozkotu beharko du garatzen hasi baino lehen.

Hortik aurrera, enpresak tresna garatzeko eta egokitzeko zedarri garrantzitsuak finkatuko ditu. Aipatzekoa da zedarri horiek lehentasuna emango diotela nekazaritzako ustiategiek legeak betetzeko lehentasunezkoak dituzten arauzko egutegien araberako atalak abian jartzeari. Atal horiei lotutako informazio guztia

erregistratzeko, osatzeko eta/edo baliozkotzeko beharrezkoak diren Ministerioaren edo Euskal Autonomia Erkidegoaren erregistro ofizialetarako sarbidea barne hartzen dute.

Hauek dira egin beharreko lanen xehetasuna eta kontratuaren osagaiak entregatzeko daten gutxi gorabeherako plana:

- 2023ko kanpainarako garatutakoa ikuskatu eta egonkortzea - Azaroa
- Ustiategiak erregistratzea
    - Baliozkotzeko lurren laburpena - Azaroa
    - Lurralde historikoetako erregistroekiko sinkronizazioa berrikustea - Abendua
    - Baliozkotze berriak - Abendua
    - Ixteko prozesuan fitxa lurralde historikoetara bidaltzea -Urtarrila
    - Sinatzen den dokumentua/fitxa berrikustea - Azaroa
- Lurren mantentze-lanak:
    - Erabilgarritasuna hobetzea - Azaroa
    - SIGPACi egindako alegazioak: dauden alegazioak eta horien egoera eskatzeko eta bistaratzeko aukera -Azaroa
    - Lurren ikuspegi anizkuna: gaur egungo erregistro modua, egungo eskaerarako edo eskaera historikorako aitorpen-modua -Azaroa
    - Baldintzak: Lur bakoitza karakterizatzea eta ustiapen-mailako txostena egitea -Abendua
    - Baliozkotze berriak - Abendua
    - Beste titular baten lurrak eskualdatzea - Abendua
    - Lurren bajak kudeatzea -Abendua
- Eskaera Bakarra (EB):
    - Erabilgarritasuna hobetzea Azaroa
    - EBko atal orokorrean aurkeztutako informazioa zabaltzea -Azaroa
    - Aurkeztu beharreko/aurkeztutako dokumentazioaren atala (nahitaezko dokumentuen kontrola) -Abendua
    - Erreserba nazionalerako eskubideen eskaera sartzea -Abendua
    - Hainbat atal berrikustea: gaztea, nekazari aktiboa, Regepa... baloratzeko datuak. -Azaroa
    - Ekoerregimenen laburpen datuak berrikustea eta hobetzea -Azaroa
    - Baliozkotze berriak -Abendua
    - Sinatzen den dokumentua berrikustea -Azaroa
    - Ixteko prozesuan fitxa Lurralde historikoetara bidaltzea -Urtarrila
- Modulu desberdinetan eta sinatu beharreko izapideetan hautatutako hizkuntza (euskara/gaztelania) kontrolatzea -Urtarrila
- Izapide guztietan sarbidea eta ziurtagiri digitala duen sinadura sartzea -Urtarrila
- Laguntzaile profilaren ataria: Ustiategia bilatu eta aldatzeko prozesuaren hobekuntzak
- Erabiltzailearentzako oharrak eta laguntzak definitu eta garatzea -Urtarrila
- NBEFk 2024ko Eskaera Bakarrerako egiten duen edozein moldapen - Otsaila

Nolanahi ere, “Azaroa” entregatzeko epea kontratua sinatu eta hilabete barru betetzat joko da.

ESPARRU TEKNOLOGIKOA

Kontratu honen abiapuntu izango den lan-testuingurua zehaztuko da jarraian, lanaren eskakizunen edo beharren ondorioz egon daitezkeen aldaketei kalterik egin gabe, Proiektuaren Zuzendaritzarekin adostu ondoren.

Mahaigain birtuala

HAZIk erabiltzaileei urruneko mahaigainean (CITRIX) edo, hala badagokio, VPN konexioan sartzeko aukera emango die eta honakoak izango dituzte:

- Garapen-tresnak
- Abiapuntua izango den oinarrizko proiektua

Garapenaren antolakuntza

- Ezarritako aplikazioaren garapena Visual Studio 2022 edo goragokoa da.
- Negozio-zatirako RecAplNet erabiliko da: HAZIren liburutegia eta Jazz tresna bat dago (v1.2.65.02), negozio-mota berriak sortzeko. Erabili ahal izango da, nahiz eta ez den ezinbestekoa.
- Ikukspegia JQuery eta Bootstrap erabiliz garatuko da, AdminLTE txantiloiarekin.
- Kodea kontrolatzeko erabiltzen den tresna Subversion da, Tortoise Subversión 1.8 bezeroarekin.
- Proiektuaren datu-baseak Oraclen daude.
- Txostenak 2016ko SQL Server Reporting Services edo goragokoan eta 2015eko SQL Server DataTools-en garatuko dira.

  HAZIk anezka bat du teknologia honetan garatutako txostenak erabiltzeko (dokumentazioa emango da garapenean zehar).
- Komeni da informazio geografikoaren tratamenduari buruzko oinarrizko ezagutza izatea.
- Beste batzuk. Lantaldeen eta Proiektuaren Zuzendaritzaren artean adostutako beste edozein arau edo estrategia.

LANTALDEA

Proposatutako lantaldea beharretara egokitutako espezializazio-mailako eta lanbide-kategoriako teknikariek osatuko dute. Zehazki, beharrezkoa izango da proiektuaren zuzendaritza-profila, profil analista eta programazio-profila izatea. Gainera, kontratuaren xedea herritarren eskura jar litekeen informazio-sistema bat egonkortzea eta hobetzea denez, beharrezkoa da aplikazioen diseinuan eta erabilgarritasunean adituak diren profilak izatea.

Lizitatzaileak hitzematen du, adjudikazioduna izanez gero, eskaintzan aurkeztutako taldea mantenduko duela Proposamen Teknikoen Agirian ezarritakoaren arabera eta berariazko jarduera bakoitzean finkatutako aldian. Kontratua gauzatzeko izendatutako pertsonek kontratua hasten denetik egon beharko dute esleituta. Pertsonak aldatu edo ordeztuz gero, aurrez HAZIri jakinarazi beharko zaio, gutxienez zerbitzuaren kritikotasunaren arabera behar den adinako aurrerapenarekin, eta beti ere gehienez 15 egun natural lehenago, eta HAZIk onartuko edo atzera botako du aldaketa edo ordezkapen hori. Dena dela, ordezkoek eskainitakoa bezalako edo goragoko profila izango dute.

Langileen ordezkapenak direla-eta lan-ingurura eta proiektura egokitzeko egon daitezkeen zailtasunak teilakatze-aldien arabera konponduko dira behar den denboran eta inolako gastu gehigarririk gabe. HAZIko Proiektuaren Zuzendaritzaren arabera horrelakorik ezin bada egin, ordezkoaren lehenengo hiru lan-asteak ez dira fakturagarriak izango eta adjudikaziodunaren kontura izango dira.

HAZIk zerbitzuetara esleitutako pertsona bat aldatzeko eska dezake, ez delako egokia edo eskatutako kaudimen arloko baldintzak eta baldintza teknikoak betetzen ez dituelako edo kontratistak egiazkoak ez diren inguruabarrak adierazi dituelako; horrelakoetan, kontratua hutsaldu ahal izango da eta kalifikazioen arabera ondoren dagoen lizitatzaileari adjudikatu lanak. Aldaketa horretarako, aurreko paragrafoko baldintzak aplikatuko dira.

Lantaldea hasieran eratzea

Kontratua formalizatu ondoren lanak egiten hasiko den talde teknikoa adjudikazioko eskaintzan zerrendatutako kideek eta profilek osatuko dute, horien arabera egin baitzen balorazioa.

Adjudikazioren ondoren proiektuko taldea eskaintza teknikoan ezarritakoarekin bat ez datorrela ikusten bada, administrazio-agiriko 20. eta 21. ataletan deskribatutako elementuak ezarri ahal izango dira.

Lanak egiteko ordutegia eta tokia

Lanak ohiz enpresa adjudikaziodunaren instalazioetan egingo dira, eta noizean behin, bileretarako, aurkezpenetarako eta antzeko lanetarako Arkauteko parke teknologikoko (Araba) HAZIren instalazioetara bertaratu beharko da.

Produktuak integratzeko, kargatzeko, onartzeko eta prest jartzeko probak garapen-fasean egingo dira mahaigain birtualetik.

Lantaldeak lanak honako baldintza hauetan garatuko ditu:

- Oro har, lantaldeko kideek adjudikaziodunaren jabetzako hardwarea eta softwarea erabiliko dute lana egiteko, baina instalazio-lanak, ezarpenak eta abian jartzeko zereginak HAZIk esleitutako postuetatik egingo dituzte.

- Salbuespenetan eta lanen burutzapena ez datorrenean bat planifikazioarekin edo zerbitzuko beharren ondorioz hala egin behar denean, adjudikaziodunak erabateko prestasuna izan behar du ohiko ordutegitik kanpo ere (HAZIko Proiektuaren Zuzendaritzarekin aurrez akordiorik izan ezean eta jarduera garatzen den instalazioetara sartzeko prestasuna izan), eta lan horiek ez dira aparteko ordu gisa hartuko edo ez zaie horrelako orduei dagokien tarifa ezarriko.

Lantaldeak Hazik eskatzen dituen harremanetarako tresnak izango ditu, hau da, posta elektronikoko kontua, telefonoa, Teams kontua... Horien bidez, zuzeneko eta gertuko harremana ezarriko da, zalantzak edo arazoak arin konpontzeko, galderak, proposamenak edo beharrezkoa den edozein komunikazio egiteko. Aipatutako baliabideak behin eta berriz ez erabiltzeak edo azkar ez erabiltzeak (erantzunak) zehapena ekarriko du karatulako 21. puntuko kontaktuen erantzunean.

Hazik onartu beharko duen ordu dedikazioaren programazioa ezarriko da, Haziren eta enpresa adjudikaziodunaren lantaldeen artean gainjartze nahikoa ezartzeko, 08:00ak eta 15:30 bitartean ahal bada, koordinazio egokia ahalbidetzeko. Edozein aldaketa Haziri jakinarazi beharko zaio, eta proiektuaren zuzendaritzak onartu beharko du.

Produktuak integratzeko, kargatzeko, onartzeko eta prest jartzeko probak HAZIko lokaletan egingo dira, egon daitekeen edozein gertakizunengatik.

Ahal dela, horrela jokatuko da, baina proiektuen beharren arabera aldatu ahal izango da.

Teknologia transferitzea

Adjudikaziodunak kontratuaren xede diren lanak egiten dituen bitartean hitzematen du, une oro, HAZIren Proiektuaren Zuzendaritzak izendatutako pertsonei eskatutako informazio eta dokumentazio oro emango diela, garatzen ari diren lanen erabateko ezagutza izan dezaten, baita egon daitezkeen arazoen berri eta horiek konpontzeko erabilitako teknologia, metodo eta tresnen berri ere.

IKTen KONTRATUEN BERARIAZKO BALDINTZAK

Kontratuaren xede diren zerbitzuetan edo hornikuntzetan IKT zerbitzuak sartzen dira; beraz, HAZIk bermatu egingo du enpresa adjudikazioduna HAZIren hornitzaileentzako informazioaren segurtasun-politikara atxikiko dela, baita politika hori berariaz onartzen eta beteko dela bermatzen duela ere.

Gainera, enpresa adjudikaziodunak honako hauek egin beharko ditu:

- Zehaztuko du zein den edo diren berariazko helburuak eta HAZIk horiek betetzearen jarraipena kudeatzeko modua (helburuak, zedarriak, egutegia, etab.).
- HAZIren informazio-prozesuko baliabideetara sartu behar izanez gero:
  - o Lana egiteko HAZIn sartzeko eredua zein izango den zehaztuko du, eta HAZIko Zuzendaritzak baimendu beharko du.
  - o Lana egiterakoan erabiliko dituen erabiltzaile-kodeak pertsonalak eta ez

generikoak izango dira, eta argi utziko da HAZIk eskubidea izango duela jarduera osoaren trazabilitatea kontrolatzeko.

- Kanpora ateratako softwarearen garapen kasuetan:

  o Enpresa adjudikaziodunak kalteberatasunei aurre egiteko HAZIk eskatutako informazioaren segurtasun-estandarrak bete beharko ditu produktua egitean; horiek hasieran zehaztuko dira eta zerbitzu-prestazioaren eboluzioaren mende egongo dira.

  o Enpresa adjudikaziodunak HAZIk zehaztutako tresnak baino ezingo ditu erabili eta hasieran zehaztuko dira tresna horiek, zerbitzu-prestazioaren eboluzioaren mende egongo dira.

  o Enpresa adjudikazioduna probako eta garapeneko plataformetan baino ezingo da jardun eta bertsio egonkorren arteko aldaketak dokumentatu beharko ditu. Ustiatzen ari diren plataformetara HAZIko langileak sartuko dira, eta berariaz galaraziko zaio sarbidea hornitzaileari HAZIn ustiatzen ari diren plataformetara.

JARRAIPEN-, KONTROL- ETA IKUSKAPEN-MEKANISMOAK

Zerbitzuaren kalitatearen kontrola eta jarraipena HAZIko Proiektuaren Zuzendaritzak egingo du.

Lantaldea proiektuaren arduradun batek zuzenduko du eta dedikazio finkoa eta behar adinakoa izango du, proiektuan zerikusia duten zereginak koordinatuko ditu eta HAZIko Proiektuaren Zuzendaritzarekin solaskide nagusia izango da.

Zehaztutako helburuak epeetan eta amaierako kalitatearen terminoetan etengabe betetzen direla egiaztatzeko kontrol-mekanismo guztiak ezarri beharko dira. Horretarako, honako hauek egitea aurreikusten da:

- Ohiko jarraipen-bilerak
- Egindako lanak berrikustea
- Lanen egoera jakinaraztea

- Kontrol ekonomikoko bilerak
- Egoerari eta aurrerapenari buruzko txostenak
- Ziurtagiri partzialak: hala badagokio
- Lanen kontrol-orriak: hala badagokio

Proiektuaren zuzendaritza eta ikuskapena proiekturako izendatutako HAZIko langileek egingo dituzte.

Laneko produktuak adjudikaziodunaren Proiektuaren Arduradunak nahiz HAZIko Proiektuaren Zuzendaritzak onartu beharko dituzte; produktuekin ados badaude, aldeko txostena egingo dute eta une horretan hasiko da zenbatzen kanpoko edozein lanek izan beharreko berme-aldia, egindako probetan hauteman gabeko akatsak egon baitaitezke.

Gainerako zerbitzuak onartzeko, HAZIko Proiektuaren Zuzendaritzak egindako lan bakoitzari dagozkion entregatzekoak berrikusiko ditu.

Jasotako produktuekin ados ez egoteak, bai aurrez ezarritako entrega-planarekiko irismen funtzionalari dagokionez, bai horien kalitate-mailari dagokionez, fakturazio-plana geldiaraztea eragin dezake, desadostasunak konpondu arte.

Oharra: Proposamen Teknikoaren Dokumentazioan ez da inondik eta inora ere informazio ekonomikoa jarriko (2. gutun-azala).